

BALEIKE



209. ZENBAKIA. EURO BAT
2012ko APIRILA

www.baleike.com

ZUMAIA MADRIL LONDRES

Sei urte daramatza Iñigo
Peñak Madrilen, goi mailako
kirolarientzako Blume egoitzan,
Joko Olinpikoak amets.
BALEIKE bisitan joan zaio.

ERREPORTAJEA: LAN ERREFORMAREN LEHEN BIKTIMAK



Zumaiako Udala

Batzarrak:
Zer da atez ate?



zumaiia
arduratsu



Zalantza edo proposamenak jasotzeko udaletxeko atea irekita daude. Udalera jotzeko, bertatik pasatu, 943 86 5025 telefonora deitu edo kexak-iradokizunak@zumaiakoudala.net helbidera idatzi daiteke.

Hitzaldi informatiboa:

Apirilak 4: Hondakinen kudeaketaren inguruko hitzaldia herritarrekin

Herritarrekin bilerak:

Apirilak 11: Bilera herrigunekoekin.

Apirilak 18: Bilera poligonoan bizi direnekin.

Apirilak 25: Bilera gazteleraz.

Maiatzak 2: Bilera Narrondon.

Maiatzak 3: Bilera Oikian (elkartean).

Maiatzak 9: Bilera landa eremuan bizi direnekin.

Maiatzak 16: Bilera ostalari eta merkatariekin.

Oharra:

Hitzaldia eta bilera guztiak (Oikia eta Narrondokoa izan ezik) 19:00etatik aurrera izango dira, Alondegian. Bilera guztiak euskaraz izango dira, apirilaren 25ekoa izan ezik (gaztelaniaz).



Galdona

denda:

Mendaro marinela, 1
tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^a Korta Industrigunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943 861 117
fax: 943 861 330



industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

BALEIKE 209

AZALA A. Rubio Aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustín Zubimendi eta Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon Urbieta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

agustinzubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

10

baleike +

IÑIGO PEÑA: "JOKO OLINPIKOAK DIRA NIRE AMETSA"

4

hitz-tantak

BIXENTE EGAÑA

7

albisteak

ATEZ ATEKOAREN ALDE
EGIN DU UDALAK

8

iritzia

UDAL GOBERNUAREN
ETA EAJ-REN IRITZIAK,
HONDAKINEN
BILKETAZ

19

erreportajea

LAN ERREFORMAREN
LEHEN BIKTIMAK

25

baleike.com

WEBGUNE BERRITUA

26

agenda

SANTELMOAK 2012

30

bertso xorta

JOHN COBRA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiako Udala



“Lanik gabe geratu, eta itsasora!”

San Telmo bezpera eta San Telmo eguna gurutzatzen diren momentua. Kofradiako balkoia. Arrantzale izandako bat ariko da bandera mastaren muturrera igotzen. Hamabost urte egin zituen itsasoan lanean. Aurtengo omendua Bixente Egaña izango da.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR MANTEROLA

Omenaldia jasotzeko baldintza da erretiroa hartuta egotea, eta noiztik zaude zu horrela?
2000tik. 12 urte pasatu dira dagoeneko.

Zenbat urte ibili zinen arrantzale lanetan?
Hamabost urte. Gutxi! Bueno, gutxi ez, nahikoa izan ziren eta! Laneko azken hamabost urteetan izan nintzen arrantzalea lanbidez.

Aurretik, zertan ibili zinen?
Lantegietan.

Eta nolatan itsasora joateko erabakia?
Lanik gabe geratu ginen, eta itsasora!

Lehendik ere ba al zenuen arrantza



munduarekin lotura?
Bai, bai. Beti. Itsasora-eta joaten ginen arrainetara.

Orion, Getarian... non ibili zinen arrantzale lanetan?
Beti Orion.

Itsasontzi batean?
Ez. Bitan. *San Martin* zuen

izena batek, eta *Nuevo Matri* izenekoan, gero.

Aizu, Bixente, lehen erantzun didazu hamabost urte itsasoan gutxi izan zirela, baina azkar zuzendu duzu, nahikoa izan zirela eta. Gutxi asko al da itsasoko lanean?

Gutxi izan ziren urteei begiratuta, baina asko era berean. Nahikoa luzeak izan ziren niretzat. Hasieran, afizio bezala hartzen duzu, *hobbie* edo denpora pasa balitz bezala, baina azkenerako, gogorra egiten da. Orain ez da hain gogorra.

Ez al da gogorra? Zergatik?

Aurrerapen tekniko asko dituzte gure aldean. Arrain gehiago harrapatzen dute,

gainera. Orain, eskulanak arindu egin zaizkio arrantzaleari. 1985ean hasi nintzen ni, atera kontuak!

Atunetan eta antxoetan beti?
Bai, eta berdeletan ere bai.

Lehen urrutirago joaten zineten ala oraingoak doaz urrun?

Oraingoak urrutirago. Gu Irlandaraino heldu ginen, eta beste batean, Hegoaldera, guk ‘Sur’ esaten genion horretara, Almeria aldera-eta. Portugalera joan behar genuen batean, tokatu egin zitzaigun, baina arrainik ez zela-eta, ‘Surrera’ joan ginen.

Oraingo arrantzaleei ere entzuten zaie zuei bezala: “Prezioak baxuak dira!”.
Gureak baxuagoak ziren.



BIXENTE EGAÑA

*Jaioterra: Zumaia
 Jaioteguna: 1937ko
 abenduaren 29a.
 Lanbideak: hainbat lantegitan
 ibili zen aurrena, eta gero,
 arrantzale, makinista.*

Berdela asko harrapatzen genuen, itsasontzia balantzan ekartzen genuen, berdela uretara erortzen zela, eta orduko 20-25 pezetan saldu behar kiloa. Ezer ez! Egundoko lana egin behar izaten genuen arrain hori guztia lehorrera ateratzen, salabardoekin ibiltzen ginelako. Oraingoek txupadorea erabiltzen dute.

Hamabost urte horietan, inoiz ahaztuko ez duzun zerbait gertatu al zitzazuizun?

Itsaso txarra, askotan. Behin, egundoko eguraldi txarra zela, rutan gindoazen. Patrioiak: “Horrela ezin dugu segitu. Geratu egin beharko dugu”. Etxera gentozen, denboraleari ihesi. Gaua zen, eta

jendea lo, hiru izan ezik: patroia, bigarren patroia eta neu. Patrioiak esan zuen aingura bota behar genuela hiruron artean: “Ni zubitik, eta zuek atzetik”. Gu atzean aritu ginen, eta olatu handiak etortzen ziren: “Hemen dek olatua! Honek tapatu baietz!?”. Hura zen hura beldurra!

Zer etorkizun antzematen diozu arrantzari?

Txarra dago itsasoan. Sasoi batean diru asko irabazten zen.

Erretiroa hartuta egonagatik, itsasora sarri-sarri joaten zara zu. Bai. Txibitara-eta. Itsaso ona dagoenean, han joaten gara.

“Etorkizun txarra dago itsasoan. Sasoi batean diru asko irabazten zen”

Joan behar hori zer da, itsasoarekin behin lotu eta askatu ezina? Ez, ez. Ezberdina da lanbidearekin. *Hobbie*-a da guretzat.

Egunero etxeke ohean lo egiteko aukera.

Hori da! Ohe zurian lo egitea esaten diogu. Arrantzale garaietan, itsasontziko oheetan, arropa artean-eta egin behar izaten genuen-eta!

Omenaldiarena esan zizutenean, gustura entzun al zenuen?

Bueno... Zahartuta gero ez du ilusio handirik egiten. Hogei urte izan banitu, orduan bai ilusioa. Momentuan bertan zerbait egingo didala pentsatzen dut.

Hasi al zara pentsatzen bandera nola igoko duzun? Herri osoa begira izango duzu...

Erdi ezkutuan gaudela altxatzen dugu-eta! ■



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izoztuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumala@terra.es

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20



L I B R R U D E N D A

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569



ALAI BERRI
supermerkatuak

Astelehenerdik igandera 08:00etatik 15:00etara
eta 17:00etatik 22:00etara, urte guztian.
Etxera banaketa doan

Alai auzategia, 3 • 943 118 394

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

ALBERDI
Dj July

Musika onena eskontzetan,
kintoen ospakizunetan eta
era guztietako festetan

600 982 810
july_alberdi144@hotmail.com




ALGORRITABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



ANA
ETXeko ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 anaetxeokozapiak@telefonica.net

ILEA PAINDEGIA

D'Ana

Kantauri plaza, 6. behea tel. 943 117 408



Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com


Erakusketa. Hego kalea, 4-5
Denda. Txomin Agirre, 4 Aroztegia. Santiago, 40
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com

OKINDEGIAR
Arkupe

Nagusia, 21 - tel. 943 561 501
ZUMAIA

OGI-EDER



ARRUTI
Baltasar Etxabe 2/9
Zumaia 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485

Itel, french, euskara, engleraz, espagnole, katalanien, suomi, baski, catala, finnois, frantses, anglas, castellan, frantsese, castellanis, finnois, inglis, baski, castellan

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net




Basadi albaitaritz

Ribaitario
Itaki Garmendia

Basadi, 7. behea - tel. 943 143 310
www.basadi@basadi.clivet.com
www.basadi.clivet.com

Golez: 11-13 / Arrabaldiz: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean bita
Lanaldietarako: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzua

BASUSTA
ERRETEGIA



Patxita Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073



PAPER diseinu grafiko

Roberto Gutierrez
696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org

ATEZ ATEKOAREN ALDEKO MOZIOA ONARTU DU UDALAK

TESTUA: ERREDAKZIOA

Zumaiako Udalak atez ateko sistemaren alde egitea erabaki zuen joan den osteguneko udal plenoan. Zaborren arazoari aurre egiteko ahalik eta gehien birziklatzea ezinbestekoa izanik, ezagutzen den sistemarik eraginkorrena atez ateko bilketa dela defenditu zuen Udal Gobernuak. “Gaur egun ezagutzen diren bilketa sistema guztien artetik atez atekoa da emaitzarik onenak ematen dituen, ezbairik gabe. Edukinontzien sistemarekin Zumaian ez gara %35 birziklatzera iristen, eta atez atekoarekin %80 birzikla dezakegu”, azaldu zuen Iñaki Agirreza-balaga alkateak.

Argudio horren aurrean, EAJk uste du asko gehiago birzikla daitkeela gaur egungo sistemarekin ere, “jendea kontzientziatzeko lana egiten bada”. “Lan hori egin denean emaitza onak eman ditu, baina, ez dakigu zergatik, gaur egun ez da bosgarren edukinontziaren erabilera bultzatzen”, salatu zuen EAJko zinegotzi Ana Arranzek. Horrekin batera, EAJren iritiz atez ateko sistema askoz garestiagoa izango da, eta ez da itxura aldetik ez da sistemarik egokiena Zumaiako bezalako herri turistiko batentzat. Gainera, hainbat galdera luzatu zituzten, hala nola: sistema ezartzeko plana eginga ote dagoen; merkataritzako bilketa nola izango ote den; zer itxura izango duten ka-

leek; ordutegiak; kontrola nola egingo den...

“Garrantzi txikiagoko” gaien aurrean parte-hartze prozesuak zabaldu direla gogorarazi zuen EAJk, eta ezer erabaki aurretik herriari galdeztzeko eskatu. “Zuek ez duzue ezagutzen herriak zer iritzi duen gaiaz. Sistema inposatu ondoren galdetuko duzue”.

PSEk ere gogor kritikatu zuen Udal Gobernuaren erabakia. “Arazo bat daukagu zaborrekin, egia da, baina zuek gobernura iritsi zarenetik; lehen plan bat adostuta zegoen, orain dena hankaz gora jarri nahi duzue”. Emiliano Cabañas zinegotziak “sistema autoritario eta polizialtzat” jo zuen atez atekoa, “dagoen sistemarik txarrena”.

Herritarren parte hartzea

EAJk egindako galdera asko aurrerantzean egingo den parte hartze prozesuan erantzungo direla jakinarazi zuen alkateak, “izan ere, sistemaren zehaztasunak, nolakoa izango den, ordutegiak... hori dena herritarrekin adostu nahi dugu”. Udal Gobernuak jakinarazi duenez, datozen asteotan bilerak egingo dira herritarrekin, lehenik eta behin informazioa zabaltzeko. Bere aldetik, EAJ-PNVk ere hitzaldi bat antolatu du edukinontzien sistema defenditzeko, maiatzaren 7rako.

Zumaian sortzen ditugun hiri hondakinak biltzeko atez ateko sistema ezartzearen aldeko mozioa onartu zen joan den osteguneko egindako ez ohiko udal plenoan. Bildu eta Aralarren aldeko botoekin. Lehen urratsa eginga, datozen asteotan herritarrekin bilerak egingo ditu Udalak informazioa eman eta zalantzak argitzeko. EAJ eta PSE atez atekoaren aurka agertu ziren, bosgarren edukinontziarekin ere birziklatze maila altuagoak lor daitezkeelakoan.

Herritarrekin bilerak

Apirilak 11: bilera herrigunekoekin.

Apirilak 18: Bilera poligonoan bizi direnekin.

Apirilak 25: Bilera gazteleraz.

Maiatzak 2: Bilera Narrondon.

Maiatzak 3: Bilera Oikian (elkartean).

Maiatzak 9: Bilera landa eremuan bizi direnekin.

Maiatzak 16: Bilera ostalari eta merkatariekin.

EAJk antolatutako hitzaldia

Maiatzak 7: “Edukinontziak erabiliz, etorkizuna garbi”. Carlos Ormazabal, Garapen Iraunkorreko diputatu ohiak emango du hitzaldia.

Hitzaldia eta bilera guztiak 19:00etan hasiko dira, Alondegian.

Atez atekoa, ahal den guztia birziklatzeko

UDAL GOBERNUA

Iritsi da azken urteotan hondakinen kudeaketaren inguruan sortu den arazoari irtenbidea ematen hasteko garaia. Horretarako, Zumaiako Udalak martxoaren 22ko plenoan adierazi bezala, herriko birziklapen tasa %80a ingurura igo dadin, atez ateko sistema herrian jartzeko ibilbidea hasiko du. Gaur egungo kontsumo sistema linealak sortu du Zumaian eta Gipuzkoan hondakinen arazoa; baliabideak ustiatu eta produktuak sortzen ditugu, ondoren, kontsumitu eta botatzeko. Guzti horrek, etengabean hondakinak sortzea dakar.

Orain artean, hondakinak zabortegetan bildu izan ditugu Gipuzkoan, baina gaur egun, irekita dirautenak ere gainezka eta ixtear daude. Beraz, bigurutzeko batean dago Gipuzkoa, eta baita Zumaia ere.

Badira urte batzuk hondakin organikoak gaika biltzen hasi ginela Zumaian. Hala ere, ez dugu lortu oraindik hondakinen %35a baino gehiago bereizita jasotzerik. Beraz, hondakinen %65a, bereizi gabe botatzen dugu Zarautzen dagoen Urtetako zabortegetan, eta horrela bete ditugu zabortegeak.

Azken urteotan, Gipuzkoako zenbait herrik, munduko beste hainbat txokotan egin bezala, hondakinen bilketa sistema aldatu dute. Horrela, frogatu dute posible dela gure etxean sortzen dugun hondakinen %80a bereizita jasotzea. Bilketa sistema hori atez ateko sistema da, eta Zumaiako Udalak ere sistema horren aldeko hautua egin du. Ez du zentzurik %80a bereizita bil daitekeela jakin, eta %65 Zarauzko mendira botatzen jarraitzeak. Gainera, Europako legediaren arabera ere, hondakinen ahalik eta kopuru gehiena bereizita jaso behar da, ahal den gehiena birziklatzeko. Horrela gainera, gaur egungo zabortegeen ereduarekin bukatuko genuke, eta hain kutsakorrak eta arriskutsuak diren errauskailuak ekidin. Guk osasunaren eta ingurumenaren alde egingo dugu, eta herritarrei arduraz jokatzeko eskatuko diegu. Prozesu parte hartzailea

Atez atekoa ezarri edo ez galderaren atzean, ahal den guztia birziklatu nahi dugun edo gutxiago bir-

ziklatzen jarraitu nahi dugun galdetzen ari garela jabetu behar gara. Eta posible dena baino gutxiago birziklatzea ez da ez eskubide bat, ez aukeratu daitekeen zerbait. Ahal den guztia bereizi eta birziklatu behar dugu, gure ingurumena eta osasuna baitago jokoan. Gaur gaurkoz atez ateko bilketa sistema da %80a bereizita biltzera iritsi den bakarra.

Atez ateko bilketa sistemen ezarpena ez da bilketa hasten. Bilketa sistema abian jarri aurretik ere ibilbide luzea izaten du. Horrela herritarrei bideratutako informazio eta sentsibilizazio kanpainak abian jartzen dira, eta parte-hartze prozesuen bidez herritarrekin batera diseinatzeko dira sistemaren nondik norakoak. Bilketa egutegi eta ordutegiak, bilketa

puntuen nolokotasun eta kokalekuak eta bestelako ezaugarriak. Guzti honen ondoren hasten da atez ateko bilketa selektiboa abian. Eta honela egingo da gure herrian ere. Gaur gaurkoz sistema ezartzeko bidea hasi besterik ez da egin. Apirilean hasiko gara herritarrekin

“Ez du zentzurik %80a bereizita bil daitekeela jakin, eta %65 Zarauzko mendira botatzen jarraitzeak”

biltzen, eta lehen bilera horietan herritarrei atez ateko sistemaren inguruko informazioa emango zaie. Horretaz gain, herritarrek dituzten galdera eta zalantzak argitzeko aukera ere izango dute. Lehen bilera horietan, ez da Zumaiara sistema nola egokitu den zehaztuko, baizik eta, informazioa jasotzeko aukera izango da. Uda ondoren, berriro egingo dira herritarrekin bilerak, eta hor hasiko gara sistemaren ezarpena zehazten guztiok batera.

Arazoaren oinarria gu geu ere bagara, eta guk geu izan behar dugu konponbidearen parte. Ingurumena eta osasuna ditugu jokoan, goazen gauzak ondo egitera.



Etorkizuna, kontenedoreak

EAJ

Lehenik eta behin, egun Zumaian eta Gipuzkoa osoan bizi dugun atez-atekoaren inguruko eztabaidak iturburu politikoa duela esan nahi dugu. Zabor bilketa soil bat “dogma politiko” bihurtu du Bilduk, eta Zumaian Aralarrek ere bai.

Atez-atekoa zaborra biltzeko sistema bat besterik ez da; defendatzen dutenek errausketaren kontra jartzeko erabiltzen dute, baina edozein dela ere bilketa sistema, zabor hondar-aren azken kudeaketarako irtenbidea beharko da, eta hau ezkutatu egiten dute. Alegia: atez-ate, kalez-kale, edukiontziz, kamioez edo asto-gurdiz egiten bada ere bilketa, zabor-aren %30-%35ak “errefusa” edo zabor-hondar izaera izango du beti, eta horrek bi aukera besterik ez du izango: edo zabortegia edo errausketa.

Atez-atekoa defendatzen dutenek, sistema hau erabiliz %90a birziklatzen dela diote, eta hau gezurra da. Gehienez ere, Gipuzkoa osoko familia guztiek atez-ateko diziplina inposaketari makurtuko bagina ere, zabor-aren %80 inguru sailkatuta jasotzera mugatuko litzateke bere eraginkortasuna, eta inola ere ez zabor-aren %65-%70 baino gehiago birziklatu edo konpostatzen.

Gipuzkoako Batzar Nagusietan onartutako Foru Arau-aren bitartez lortu nahi den (eta lortzeko bidean garen) helburuak zabor guztiaren gutxieneko %60a birziklatu eta konpostatzen generaman. Azken hamarkadan guztion artean egin dugun ahaleginaren bitartez dagoeneko hondakinen %43,5 birziklatzera iritsi gara (2010eko datuen arabera), eta ondo legoke gogoratzea 2000. urtean %17,4a besterik ez zela birziklatzen . Aurrerapauso hau azpiegitura egokiak eginez eta, batez ere, jendea kontzientziatuz lortu da.

Horregatik, aspaldi hasitako bidetik, benetan lorgarria den helburuan jarraitu nahi dugu, edukiontzien bitarteko zabor bilketarekin jarraituz, eta pedagogiaren bidez, tasen murrizketa sutagarri moduan eta jendearekin lana eginez ditugun birziklapen mailak hobetuz. Eta ez, Bilduk eta Aralarren defendatzen duten modura, inposaketaren eta zigorraren bidez.

Benetako “ zero zaborra” Alemaniako Berdeek esaten dutena da eta gu erabat ados gaude: Aprobetxagarria

den guztia aprobetxatu, eta gainerako %32 erraustu eta horrela argi indarra sortu. Europa aurreratuan erabiltzen dituzten egungo errausketa-sistemek baino askoz gehiago kutsatzen du edozein zabortegik.

Guk planeamendua, azpiegiturak, finantziarioa aurreikusita eta lotuta utzi ditugu, baita ere kalkulatu dugu Zubietako errauskailuak urtean ekoiztuko duen ener-

gia: 30Mw urtean, hau da 60.000 familiek urtean behar duten energia.

Urola Kosta eskualdea izan da lehena (eta bakarra oraingoz) organikoa biltzen duen edukiontzi marroia bere bost udalerrietan zabaldu duena, biztanleri osoari konposta egiteko aukera emanez.

Inbertsioa eginda dago, kontzientziario kanpaina gehiago egitea gelditzen zaigu, jendea

informatzeko eta inplikazio maila handiago lortzeko, baina honek gauza guztiek bezala bere denbora behar du. Nork zekien 2000. urtean zer zen konposta?. Beira, papera, kartoia eta plastikoa- ren birziklapen mailak goraka joan diren modura azkenengo urtetan, organikoarena ere, kanpaina egokiak

Dagoeneko hondakinen %43,5 birziklatzera iritsi gara, azpiegitura egokiekin eta jendea kontzientziatuz

eta jendea erraztasunak eman ezker gorantz joango dela ez dugu zalantzarik. Inbertsio handiena eginda dago, orain jendearen inplikazio lortu behar dugu, baina inposaketak alde batera utzita.

Guk, European gehien birziklatzen duten herrien bidea jarraitu nahi dugu eta baliabideak jarrita ditugu horretarako. Bilduk eta Aralarrek berriz, sistema hiru aldiz garestiagoa inposatu nahi digute, neurri gabekoa bere eraginkortasunari begiratu gero, gure herriko kaleetako itxurarako kaltegarria eta zikinagoa, familientzat askoz ere nekagarriagoa eta deserosoagoa, eta azken finean, zaborrak eragiten digun arazoari erantzunik eskaintzen ez diona, beti ere errausketa beharko delarik, edo, errausketa ez bada, ingurumenarentzat eta osasunarentzat hamaika aldiz kaltegarriagoak diren zabortegiak eskatuko dituena.



IÑIGO PEÑA PIRAGUISTA

“JOKO OLINPIKOAK DIRA NIRE AMETSA”

Duela sei urte maletak hartu eta Madrilera joan zen, egunen batean Joko Olinpikoetan parte hartzeko ametsarekin. Ordudanik, goi mailako kirolariekin bizi da, Blume egoitzan. Apirilaren 14an, San Telmo egunez, urratsa egin dezake Londreserako bidean hautaketa proba irabazteko badu. Baleike Madrilen izan da, bere bizimodua bertatik bertara ezagutzeko.

TESTUA: GORKA ZABALETA
ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Madrid mendebaldean dago Blume Egoitza, Casa de Campotik gertu, Arte Ederretako fakultatearen ondoan. Los Andes ostaturako harrerako mahaitik hartu dugun turistentzako mapan ez da ageri, baina bezperan Iñigok berak autoan erakutsi zigun bidea. Gertu zegoela iruditu zitzaigun, eta oinez joatea erabaki dugu. “Ordu laurdenean hor gara, Iñigo”, bidali diogu mezua. Abiatu orduko oharatu gara hanka sartzeaz.

Martxoaren 9a da, baina uda giroa dago Madrilen. Motxilak trakankuluz beteta daramatzagu eta bero egiten du. Metroak ez du geltokirik Blumetik gertu, eta autobusen arrastorik ez. “INEFera iristen zaretenean, eskuineko bidetik hartu eta iritsiko zarete. Ez du galbiderik, irteerarik gabeko errepidea da eta”. Jarraibideak gogoan, parke bat zeharkatu eta iritsi gara INEFera; hartu dugu eskuineko bidea.

Minutu batzuk geroago: “Arnaitz, atzo zubi honen azpitik ez ginen pasa, ezta?”. Galdu egin gara. “Nola da posible? INEFetik eskuinera bide bakarra zegoen, ezta?”. Atzera egin dugu, “buf”-aka. Aurkitu dugu bide zuzena. Iritsi gara Joaquín Blume egoitzara. Kolore gorriko adreiluzko eraikina da. Errepide ondotik ikusita, solairu bakarrekoa dirudi –aldapan dago eraikia eta beherantz gehiago ditu-. Iñigo atarian daukagu, zain. Goizean entrenamendu saioa egin du urtegian, eta arratsaldez jai du. Jertsea eta bufanda ditu jantzita. Gu izerdi patsetan gaude.

Egoitzako harreraren baimena eskatua zuen Iñigok gu kamerekin gelara sartu ahal izateko. “Gainontzeko instalazioetan ez da baimenik behar, baina geletan grabatzeko bai”. Iñigoren atzetik goaz, korridore luze eta zabal batetik. Ezker-

eskuin daude Blumen bizi diren kirolarien gelak. “Hemen kirol askotariko goi mailako kirolariak bizi gara, piraguistak bakarrik ez: atletak, igerilariak, gimnastak”. Eraikinaren ia beste muturreraino eramán gaitu. Giltza elektronikoa poltsikotik atera eta “Hemen bizi naiz” esanez zabaldu digu 322. gelako atea.

Gela zabala da. Hormetan, argazki gutxi batzuk ditu, ia denak piraguismokoak. Realaren bufanda ere paretan dauka eskegita. “Madrilera etorri nintzenetik hemen dago nirekin”. Mahai zabalean, ordenagailu eramangarria, telebista eta Isabel neskalagun madrildarraren hainbat argazki. Apal baten gainean, jostailuzko telefono kabina gorri bat eta bi pisuko autobus pareta ikusi dugu, horiek ere gorri kolorekoak. “London City” eta “Best of British” irakur daiteke. “Arreba Laurak ekarri zizkidan, Institutuarekin Londresera egin zuen bidaia batetik. Ea Joko Olinpikoetarako sailkatzen naizen eta neuk ere pare bat ekartzen dizkiodan”.

Hori da zure ametsa, ezta?

Bai, hala da, nire ametsa beti izan da Joko Olinpikoetan parte hartzea eta, behin han egonez gero, lan txukuna egitea.

Amets horren bila, duela sei urte etorri ziren Madrilera bizitzera, artean ia ume bat zinela –21 urte ditu-. Nola gogoratzen dituzu egun haiek?

Egun arraroak izan ziren, gogorak ez, baina bai nahikoa arraroak. Oso erabaki garrantzitsua zen nire bizitzan, aldaketa handia zelako, bai eskolagatik, hiri handi batera bizitzera etortzeagatik, etxekoengandik urrun... Bizitza erabat aldatu zitzaidan egun batetik bestera. Egun arraroak izan ziren, erabakia hartu arte. Behin erabakia hartu genuenean, gogoratzen naiz ez nuela nahi eguna iristea, Zumaian oso gustura nengoelako, baina ez zegoen atzera bueltarik. Eguna iritsi

“Kirolari zein pertsona bezala asko hazi naiz hemen”



▼ MADRILEN SEI URTE

*Sei urte daramatza iñigo Peñak Madrilén,
burubelarri entrenatzen. Argazkia, Puerta del
Solén dago egina.*



◀ ▲ BLUMEKO INSTALAZIOAK

*Goi mailako kirol instalazioak dituzte
Joaquin Blume egoitzan.*

“Hamasei urte bete eta lau egunera etorri nintzen Madrilerara, Blume egoitzara”

zenean, etorri ginen, eta, egia esan, nahikoa ondo moldatu nintzen hasieratik, ez dut aparteko arazorik izan, eta, zorionez, hemen jarraitzen dut, sei urteren ondoren.

Gogoratzen zara zer egunetan etorri zinen?

Irailaren 7an hamasei urte bete eta handik lau egunera, irailaren 11n etorri nintzen Madrilerara, Blume egoitzara. Gurasoekin etorri nintzen. Iritsi bezain pronto, entrenatzaileari deitu genion eta Blumeko instalazioak erakutsi zizkigun. Egia esan, ez nuen arazorik izan egokitzeko, nire adineko beste hamar bat lagunekin egin nuen topo, denok afizio berberarekin, piraguismoa, eta elkarrekin oso ondo moldatu ginen hasieratik. Lagun onak egin nituen segituan. Soilik gauetan, esnatzen nintzenean, lehen astean ez nuen asmatzen non nengoen, gela arrotza egiten zitzaidan.

Hain gaztea izanik, zure gurasoek zeresan handia izango zuten erabakian, ezta?

Bai, beraientzat ere urrats handia zen, baina hasieratik izan nuen haien babesa, beti esaten zidaten aukera hau ezin zela galdu, probatzeko, eta gustura ez banangoen etxera deitzeko eta bila etorriko zirela. Hasieran aitak bultzatu ninduen amak baino gehiago, baina biek animatu ninduten.

Nola sortu zitzaizun hona etortzeko aukera, soilik goi mailako kirolariak onartzen dituzten egoitza honetara?

Espainiako Piraguismo Federazioak kadete mailako hiru piraguista onenak Blumera ekartzen ditu jubenil mailara igerotzen direnean. Ni urte hartan Espainiako txapeldun izan nintzen, eta banekien deituko nindutela. Eta hala izan zen. Gutun baten bidez jaso nuen Blumera etortzeko gonbidape-

► UNIBERTSITATEAN

Entrenamendu saioak amaitzen dituenean unibertsitatera joaten da, 18:30etik 21:30era. Enpresa zuzendaritza ari da ikasten.



na, urte osoan hemen bizi eta nazioarteko txapelketak presta-
tu eta lehiatzeko.

Sei urte hauetan, zure helburuak bete al dituzu? Zer balorazio egiten duzu, kirol ikuspegitik?

Balorazioa oso ona da. Jarri dizkidaten ia helburu guztiak lortu ditut. Jubeniletan, lehen urtean, Europako eta Munduko txapelketetarako sailkatu nintzen, K2an; bigarren urtean, Masterra irabazi nuen eta Europako Txapelketara K1ean parte hartzea lortu nuen. Pena daukat Europako Txapelketa hartan laugarren amaitu nuelako K1ean eta K2an. Hirugarren urtean senior mailara pasa nintzen, eta hasieratik eman nuen aurpegia. Lehen dominak irabazi nituen, K1 500 metrotan. Eta urte hartan bertan Munduko Txapelketara joan nintzen, K4an, Kanadara. Iaz, Londresko Joko Olinpikoetarako sailkapenaren borrokan izan ginenekin K4arekin; ez genuen lortu, baina balorazioa oso ona da. Kirolari zein pertsona bezala asko hazi naiz hemen.

Azken urteotan Espainiako selekzioko K4ko taldean egon zara, eta, lehen esan duzun bezala, iaz ez zenuten lortu Jokoetarako txartela. Laukotea utzi eta orain bakarka saiatu nahi duzu, oraindik Londresera joateko txartelen bat badago-eta jokoan. Aldaketa erraza izan al da?

Bai, azken finean, K4an ibiltzeko ere ia denboraldi osoa bakarka egiten dugu. Probak eta kontrolak K1ean egiten dizkigute, eta gero pare bat hilabetez ibiltzen gara laukotean. Beraz, garrantzitsuena beti bakarkako lan hori da. Nik iaz erakutsi nuen K1ean daukadan maila, proba batzuk irabazi nituen Espainian mila metroko distantzian, eta erabaki nuen bide horretatik segitzea merezi zuela.

Denboraldia hasi berritan osasun arazoren bat ere izan duzu...

Aurten inoiz baino hobeto ari nintzen entrenatzen, oso in-dartsu ikusten nuen neure burua, baina otsail aldera gaixotu egin nintzen, bronkitisa harrapatu nuen, eta bost astez geldirik egon behar izan nuen. Lehen egunetan, botikarik hartu ezinik egon nintzen, dopin kontrolak direla-eta ezin dugulako ia ezer hartu. Baimen berezia eskatu behar izaten da. Baimena eskatu eta antibiotikoak hartzen hasi nintzen, baina ordurako

Iñigo Peñaren egun arrunt bat

Irail amaieratik abuztu aldera arte bizi da Iñigo Peña Blumen. Lau astetik behin izaten du Zumaiara asteburuan etortzeko aukera. Bere egun arrunt bat nolakoa den kontatu digu.

“Gure entrenamendu zikloak lau astekoak izaten dira. Hiru astez oso gogor entrenatzen dugu, eta laugarrenean arinago, egindako lana barneratzeko. Erdi atsedeneko aste horretan izaten dugu asteburuan etxera joateko aukera. Aste arruntetan, igandean bakarrik izaten dugu atsedeen; astelehen, asteazken eta ostiraletan goizez entrenatzen dugu, eta astearte, ostegun eta larunbatetan, goiz eta arratsaldean”.

8:00 Jaiki eta, gosaldu gabe, zuzenean korrika egitera joaten gara, Casa de Campora –Blumeren ondoan dago–. 50 bat minutuko saioa egiten dugu. Blumera itzuli eta gosaldu egiten dugu. Gosari ona, ondo merezitakoa.

10:00 San Juan Urtegira joaten gara, uretan entrenatzera. Madrildik 70 bat kilometrora dago, eta furgonetaz egiten dugu egunero joan-etorria.

13:00 Bazkaltzera itzultzen gara Blumera. Jatekoari dagokionez, denetarik jartzen digute, eta, muga batzuen barruan, nahi duguna jan dezakegu. Elikadura orekatua eramaten erakusten digute, eta, normalean, arduraz jokatzeko dugu.

16:00 Bazkalduta eta atsedean hartu ondoren, beste entrenamendu saio bat egiten dugu, gimnasioan edo ergometroarekin, pare bat ordukoa.

18:00 Eguneko entrenamenduak amaitzen dira.

18:30 Unibertsitatera joaten naiz, arratsaldean dagoen txanda berezi batera. Hiru ordu egiten ditut han, ikasten.

21:30 Unibertsitatetik Blumera itzultzen naiz. Afaldu eta ohera.

BEDUA
ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

Braky's
Okindegia Kafetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700

EGOKI

Erlorju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787

EKAIN
SAGARDO EKIDLOKOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 035

Ekin
Elektronikak, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943 143 097
ekin@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

DIGITAL+

SESMA
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206
www.entrenadorpersonalesma.com
josebasesma14@gmail.com

ERNTO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERROTA
OPILOKINDEGIA
SANTIXO AUZOA, 32
20750 ZUMAIA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
erota@erota-okindegia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatilak
konpontzeko
zerbitzu berria

Eskatu surretan
konpromisorik gabe.
DOAN

Behoko plaza tel./faxa: 943 143 395

FARMA ZUMAIA
Parafarmazia • Belar-denda
Tel. 943 865 323

PRODUKTUAK

- Urne eta haurrentzat, dietetikoak, kosmetikakoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dieta, Naturapaia, Indologia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesioentzako, Estresaren, Arduratsuen, Buruko minen, Zirkulazio arazoan... kontrakoak), Akupuntura, homatekin eta homatik gabe

BASADI KALEA, 1 - BEHEA - ZUMAIA

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Era gutietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioa tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617

Galdona
burdindegia

Mondano marnela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA
Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057

Garoa
kafetegia

Txomin Agirre kaia Tel. 943862181

nahikoa gogor harrapatu ninduen. Pixka bat estutu nintzen, besteak entrenatzen ikusten nituelako eta nik ezin. Kezkatuta nengo, berriro sasoia garaiz hartzeko gauza izango ote nintzen, baina, zorionez, entrenamenduetara itzuli eta nik uste baino azkarrago erreku-peratu naiz.

Eta Londreserako txartel horietako bat lortzeko, zer aukera ikusten dizkiozu zeure buruari?

Sailkatzea oso zaila da, hori hasieratik banekien. Kontuan hartu herrialde guztietako piraguista indartsuenak K1ean lehiatzen direla. Probarik zailena da, lehiatuena. Baina pausoz pauso joan behar da. Lehenik eta behin, Espainian irabazi behar dut. Berez, gutxieneko maila duen edonor aurkez daiteke, baina uste dut, gauzak ondo bidean, txartela Francisco Cubelos eta nire artean egongo dela. Hautaketa proba apirilaren 14an izango da, eta nik uste dut aukerak badituzala. Hori gainditzeko badut, gero, maiatzean, Joko Olinpikoetarako sailkatze kanporaketa gainditu beharko da, beste herrialdeetako piraguiestekin. Eta Londreserako bi txartel baino ez dira egongo jokoan.

Aurten Joko Olinpikoetara joan edo ez, horrek zure etorkizuna baldintzatuko al du?

Oraindik gaztea naiz eta berdin-berdin jarraituko dut. Joko Olinpikoak nire ametsa dira, baina lau urtetik behin izaten dira eta tartean badaude beste helburu garrantzitsu asko. Gainera, gogo handia daukat nazioartean lehiatzeko eta emaitza onak lortzeko. Londresera ez banaiz joaten, denboraldia ez da hor amaitzen. Europako Txapelketak dira ondoren. Gogo berezia daukat uztailean Portugalen jokatu den 23 urtez azpikoaren Europako Txapelketan lehiatzeko. Domina bat lortu nahi dut bakarka mila metrotan. Piraguismoa ez da Londresen amaitzen.

Eta bizimodu hau eraman ahal izateko dirulaguntzak izango dituzue, ezta?

Bai, Federazioaren laguntza daukagu, eta, nire kasuan, Jaurritaren Basque Team taldearena ere bai. Nazioarteko txapelketetan lortzen diren emaitzen arabera banatzen dituzte dirulaguntzak.



“Joko Olinpikoetarako sailkatzea oso zaila da; kontuan hartu herrialde guztietako piraguista indartsuenak K1ean lehiatzen direla”

Dirulaguntzak ez al dira jaitsi krisiaren eraginez?

Ba, egia esan, guk orainoz ez dugu sumatu. Aurrerantzean auskalo zer gertatuko den.

Piraguismoa da gaur egun zure bizitza, baina etorkizunerako ere ari zara prestatzen. Ikasketak ez dituzu alde batera utzi.

Zumaian DBH4 amaituta etorri nintzen Madrilera, eta batxilergoarekin hasi nintzen. Lehen bi urteotan batxilergoa eta selektibitatea egin nituen. Hasieran aldaketa sumatu nuen, euskaratik gaztelaniara pasatzean, baina segituan egokitu nintzen. Ondoren, kirol jardueretako teknikari titulua atera nuen, Blumen bertan. Eta orain enpresa zuzendaritza ari naiz ikasten unibertsitatean, bigarren mailan nago eta oso gustura, betidanik gustatu izan zaidan mundua baita enpresena. Piraguismoa bukatzen denerako ikasketa guztiak amaituta edukitzea da nire helburua, etorkizunean enpresa edo banka munduan lana aurkitu ahal izateko.

Gainera, uste dut ikasketek mesede egiten didatela kirolean ere. Ikasketarik gabe, egun osoa piraguismoan pentsatzen nengoke, eta hori ez da ona. Etena egiten laguntzen dit, eta gogotsu itzultzen naiz entrenamenduetara.

“Madrilgo erdigunea ez dut gustuko”

Piraguismoak eta ikasketek uzten dioten denbora libre apurrean Madrilgo ohiko bazterrak ikusten imajinatu dugu Iñigo: Puerta del Sol, Cibeles, Gran Via, Callao “Ez, ez, ez Madrilgo erdigunea ez dut batere gustuko. Urtean pare bat aldiz joaten naiz, baina ez gehiago. Jende gehiegi dago beti, turistez gainezka, sekulako trafikoa “. Aitortu digu metroa ere ez duela erabiltzen. Opel kadett gorri bat dauka, eta horrekin ibiltzen da batera eta bestera. “Erosketak egiteko, adibidez, nahiago izaten dut Madril kanpoaldeko saltoki handi batera joan. Autoa aparkatzeko askoz erosoago da”.

—Bada, gaur salbuespena egin beharko duzu. Madril erdigunera joango gara, argazki batzuk egitera— proposatu diogu.

—Noski, gaur egun berezia da. Autobusean joango gara.

—Beste mesede bat ere eskatu behar dizugu... Arrauna eramatea bai? Argazkiek beste indar bat izango lukete. Imajinatu: Puerta del Solen edo Callaon, jendez inguratuta, eta planta ederreko mutil gazte bat piraguismoko arraun batekin...

—Konforme— erantzun digu, bi aldiz pentsatu ondoren.

Urtegia, Madrildik 70 kilometrora

Goi mailako kirolariek dituzten premiak asetzeko mailako instalazioak ditu Blume erresidentziak. 50 metroko olinpiar igerileku estalia, makina berrienekin hornitutako bi gimnasio, ergometroak, atletismoko pista... Aitzakiarik ez dute han bizi diren kirolariek. Piraguistei, ordea, berebiziko baliabide bat falta zaie: uretan entrenatzeko leku egoki bat. “Hori da hemen daukagun arazoa. Uretako entrenamenduak egiteko Madrildik 70 bat kilometrora dagoen urtegi batera joaten gara, San Juan urtegiara. Errepide ona dago haraino, baina egunero furgoneta hartu eta joan etorrian ibili behar izaten dugu”.





Callaoko metroaren ahoan eta Puerta del Solen egin ditugu argazkiak. Neska gazte koadrila batek inguratu gaitu saioa hasi orduko. “Nor ote da mutil eder hori?”, entzuten diegu. Arnaitzi berdin dio inguruko zurrunbiloak. Jo eta su ari da argazkiak egiten, lurrean etzanda, angelu egokienaren bila. Iñigo berriz, estualdia ahal bezala pasatzen. Lanak bukatuta, La Latinako taberna batera eraman gaitu. Han ezagutu dugu Isabel, Iñigoren neskalaguna. Madrilgo gauak tentatu baino lehen, Los Andes ostatura erretiratu gara. Biharamunean San Juan urtegitira joatea da plana, uretako entrenamendua bertatik bertara jarraitzeko.

Urtegitiko entrenamendua

Goizeko 10:00etan abiatu gara San Juan urtegitirantz. Gure aurretik, kotxe gorri batean doaz Iñigo Peña, Francisco Cubelos, Diego Cosgaya eta Alvaro Bravo piraguistak, eta Espainiako selekzioko bigarren entrenatzaile Rodrigo Tiebo. Ia hiru ordu laurden behar izan ditugu urtegitira iristeko. Larunbata da, eta jende asko ikusten da urtegiaren inguruan paseatzen, edota arrantzan. Lau piraguistak segituan prestatu dira uretarako. Rodrigo Tiebo entrenatzaileak lekua egin digu lantxan, eta kamerak lanean jarri ditugu.

Laurak lerroan jarri eta saio motz baina gogorrak egiten dituzte, bata bestearen atzetik. Tiebok oharrak egiten dizkie lantxatik. “Iñigo, ez bota gorputza hain aurrerantz”, zuzendu dio gure protagonistari. Dozena erdi saio inguru egin ondoren, atsedean hartu dute.

“Sasoi betean banago, ez dut uste inoren beldur izan behar dudanik”



▲ ▼ INDARBERRITUTA

Gaixoaldia gaudituta, entrenamendu saioetan emandako mailarekin pozik dago Iñigo.

Iñigo, une honetan zure lehiakideak diren piraguistekin bizi eta entrenatzen zara egunero. Esan diguzu Francisco Cubelos dela zure aurkaririk gogorrena apirileko kanporaketarako, eta elkarrekin etorri zarete autoan. Nola daramazue egoera hori?

Egia da lehia hori dagoela gure artean eta tentsioa sumatzen da batzuetan, baina gure artean ondo konpontzen gara, ohituta gaude. Aukeratu dugun bizimodu honen parte da.

Baina, esate baterako, zuen lehen entrenatzailea, Luis Brasero, kasualitatez, Francisco Cubelosen klub berekoa da. Horrek ez al dizu kezkarik sortzen? Ez litzateke piraguismoan zerbait arraroa gertatzen den lehen aldia...

Nik badakit nire aukerak ditudala eta lasai nago. Cubelos oso fuerte datorren gaztea da, 19 urte baino ez ditu eta jadanik maila handia erakutsi du. Baina ni sasoi betean banago, ez dut uste gaur egun inoren beldur izan behar dudanik mila metroko distantzian. ■



GOIKO TABERNA
Erribera, 9 tel. 943 861 391


Ikastegi homologatua

Golden Gate
Institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

Cure-Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiá
Tel.: 943 86 09 70

English School

Harvest

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatuzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

de CAPI

Ibaigain
inmobiliaria

Ricardo Azkue
API 399

Txomin Agirre 4, behea
tel. 943 862 651
faxa 943862748

rijazcue@euskalnet.net

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

IRUITZ



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

Itzurun, S.L.
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotatuak...

Itzurun Zuhaitzibidea, 2 behea
Tel. / Fax: 943 86 15 66

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basod, auzategia, 10 tel. 943 861 853

ORRAZTEGI
ZUMAI



943 862 083

Kala

Pintxoak eta otartekoak



Txomin Agirre kala, 8

KABI Patala Eteazarreta, 15
943 117 427

TABERNA



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320



kalari

Upela plaza, 6
tel. 943 862 517

KANTAURI
TABERNA



Pintxoak • Plater Konbinatuak • Kazolatxoak

Kantauri plaza, 4 behea • Tel. 943 575 840

Martxoaren 28a izan zen Zelai hoteleko langileen azken laneguna. Otsailaren hasieratik protestan ari ziren, eta enpresako zuzendaritzak lantalde osoa kaleratu du. Zumaia kaleetara zabaldu zuten borroka auzitegietan jarraituko du orain. Zaila, oso zaila dute beren lanpostuak berreskuratzea, baina burua tente eta duintasun osoarekin amaitu nahi dute afera.

LAN ERREFORMAREN LEHEN BIKTIMAK

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA



Lana galtzea edo lana ez aurkitzea da pertsona askoren beldur handiena gaur egun. Langabezi datuak gorantz doaz etengabe, eta inork ez daki nola geldiarazi. Etenik ez duen tragedia baten aurrean gaude, eta irtenbiderik ez da sumatzen etorkizun hurbilean.

Drama horren kapitulu bat bizi izan dugu azken hilabeteotan Zumaian. Lau kaleratzeren aurka altxa ziren otsailean Zelai hoteleko langileak: greba deitu zuten hilabete hartako asteburuetarako. Zuzendaritzaren jokaera salatzea zuen neurri hark helburu. Enpresako jabeek, baina, atzera egin beharrean, erabaki drastikoa hartu zuten: lantalde osoa kaleratzea. Martxoaren erdi aldera jaso zuten langileek kaleratze gutuna. Langileak kikildu ez eta erabakia epaitegietara eta Lan Ikuskaritzara eraman zuten. Manifestazioak ere egin dituzte Zumaiaiko kaleetan, herritarrek jakin dezaten zer egoera pairatzen ari ziren Itzurun gaineko hotel-bainuetxean.

2000. urtean zabaldu zen Zelai hotela eta elkarrizketatu ditugun langileen esanetan, “enpresa beti egon da erdipurdi. Jabeek ez dute interes handirik jarri. Beti esan izan dute enpresa gaizki zihoala eta defizita zuela, baina ezer gutxi egin dute egoera konpontzeko”. Hala hitz egiten duena Jesus Mari Marino da. 38 urteko zumaiarra, 12 urtez egin du lan hotelean, zabaldu zenetik, hasieran komertzial gisa eta gero harrerako buru bezala. Berekin da Gotzone Egaña. 49 urteko emakumea; 11 urtez izan da Zelaiko langilea: zazpi urtez zerbitzari, eta azken lauak garbitasunean. Biak ere langileen

ordezkariak dira enpresan. Elkarrizketan beraiekin da Zigor Gazpio, ELA sindikatuko delegatua. Astelehen goiz batean elkartu gara hitz egiteko. Eguzki izpiak sartzen dira lainoen tartetik. Langabetu batzuen drama jasotzen zuen 2002. urteko *Los lunes al sol* pelikula datorkigu burura nahitaez.

Afera iazko udan gaiztotu zen, baina zauriaren jatorria ezagutzeko denboran atzera egin behar da: 2009 apirilera. Be-

“Mendekua izan da, beraien erabakiaren aurka altxa garelako”

zeroen jaitsiera argudiatuz, zuzendaritzak suspentsio-ko espedientea aurkeztea erabaki zuela du gogoan Gazpiok. “Goi denboraldia gainean zegoen eta esan genien ez genuela ulertzen erabakia. Irailean hitz egiteko geratu ginen, baina ordutik gaur arte ez dute ezer egin. Guk ere ikusten genuen lanak behera egin zuela, eta horregatik proposatu genien Enplegua Erregulatzeko Espedien-

tea (EEE euskaraz, ERE gaztelaniaz) zabaltzea: urtean zehar langabezia kontsumituko genuela, eta gehien behar zenean % 100 egingo genuela lan”. Bi urteotan erantzunik ez zutela izan dio delegatuak.

▼ MANIFESTAZIOAK

Grebarekin batera, hainbat manifestazio egin dituzte.



Auzia iazko abuztuan berpiztu zen, enpresak sukaldeko langile guztiak kaleratzea erabaki zuenean. “Bederatzi langileak –zazpi finkoak eta bi aldi baterakoak– bota eta beraien gustukoak zirenak kontratatu zituzten, haien esanetan ‘onak’ zirenak”. Hilabete hartan entzun eta bizitakoak gogoan ditu Jesus Marik: “Esan ziguten beraiek ez zirela kapaz jatetxea eramateko, buelta bat eman nahi ziotela eta lau enpresa handi zeudela hura eramateko interesarekin. Langileak kalera bota eta gero, ordura arte sukaldea zeraman berberak jarraitu zuen hura kudeatzen. Langileak bota, eta zerbitzua azpikontratatu zuten. Ikusi genuen neurri hura aurrez planifikatu zutela”. Ondoren etorriko zenaren atarikoa besterik ez zen izan.

2012ko urtarrilaren 10ean beste lau langile kaleratuko zituztela adierazi zuten zuzendariek, “egin zuten estudio zehatz batek hala gomendatzen zuelako”. “Garbiketako bat bota nahi zuten, eta hotel osoan garbiketako langile bakarra zegoen; mantentze laneko bat, eta hotelean hiru daude (hori-tako bat, gainera, zuzendariaren senarra, eta ez du inoiz lanik egin); eta beste bi langile”, dio Zigorrek. Erabakiarekin ados ez, eta greba deitu zuten otsaileko asteburuetarako, eta gero martxora ere luzatu zuten. “Pentsatzen genuen kalera-tze hauen guztien atzetik azpikontratazioak etorriko zirela. EEE bat egitea proposatu genuen, lanorduak zehazteko. Baina zuzendaritzaren erantzuna izan da langile guztiak kaleratzea. Mendekua izan da beraien erabakiaren aurka altxa garelako”. Horrelako neurriak antzerako beste hotel-bainuetxeetan ere hartzen ari direla dio ELAko

“Langileak lanposturik gabe geldituko dira, erreformak aukera hori ematen duelako”

delegatuak; Oriokoa horren adibide. Lantalde osoa kalera joango bada ere, garbi dute hotela ez dutela behin betiko itxiko. “Ez dute inon jarri enpresa itxiko dutenik. Alkatearekin hitz egin dutenean ere ez dute halakorik esan. Epaiketak pasa arte egongo dira zerbitzu guztiak azpikontratatzeko”.

Kaleratze hauek PPren gobernuak onartu berri duen Lan Erreformaren ondorio garbia dela antzematen dute. “Orain arte ezingo zituzten kaleratze hauek egin, espedientea lan delegazioak onartu beharko zuelako. Orain, erreformaren ondoren, lan delegazioa desagertu egin da, eta juridikoki defendatu beharko ditugu gure eskubideak. 33, 40 edo 45 eguneko ordainsariak izango dira lan egindako urte bakoitzeko, baina langileak lanposturik gabe geratuko dira, erreformak aukera hori ematen duelako. Zelaien gertatu dena hemendik aurrera gertatuko denaren adibide garbia da. Zumaiaikoa da erreforma sartu ondoren Gipuzkoan egin den lehen kaleratze kolektiboa”.


Azken urte hauek arte zuzendaritzarekin harreman txarrik ez zegoela diote Gotzonek eta Jesus Marik. “Pare bat urtetan zuzendaririk ez zuen izan hotelak eta guk egiten genituen haren lanak. Azken zuzendaria sartu zenean gurekin hitz egiten zuen, baina elkarrekin kafea hartu ere”. Haren senarra sartu zenean egoera erabat aldatu eta txarrera egin zuela diote. “Ordutegiak aldatzen zizkiguten, lanean presionatzen gintuzten, baina aurpegira inoiz ez ziguten ezer esaten”. Zuzendariaren senarrak, kontratuaren arabera mantentze laneko langilea zenak, polizi txakurraren lanak egiten zituela diote.

Hotelak eskaintzen duen zerbitzua hobetzeko lan handirik ez egitea egotzen diete zuzendaritzakoei. “Urte hauetan ez dute ezer egin gauzak konpontzeko. Bezeroek beraiek zioten hotela egoera kaxkarrean zegoela; luzatzen zitzaizen iritzi txostenetan hala jasotzen zen. Kexa handiena zen mantentze aldetik nahiko gaizki zegoela. Zer bezero bueltatuko da horrela?”

Urtetik urtera lan baldintzek ere okerrera egin zutela aipa-

▼ LAN ERREFORMA

Lan erreformaren ondorioak bete betean harrapatu ditu Zelai hoteleko langileak.





Kresala
Taberna
Julio Beobide 3, tel. 943 019 869



kuttur
lentzeria
erribera kalea tel. 943117936



malaur

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatetxea • taberna
oilasko erreka • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizak
hanburgesak
bokatak...

marina
Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



Maxi
solarium
ileapaindegia
estetika
etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi

- ✓ Eguneko menua.
- ✓ Asteburuetan txotx, sagardotegiko giroan.



Muniosoro, 54
OIKIA
tel.: 943147891

muniosoro
Taberna - Jatexea

Nikol Enea



TABERNA
Amaiako plaza



MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea
Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna
ogitartekoak
pintxoak
Upela plaza, 7
tel: 943 537 901



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK
Etengabelko garabi zerbitzua
Hego kalea, B3 (Estazioan) 20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com
Itziar induriguenea, C 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com
638 887 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)

"Muagi"
errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia
RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 631



ETXEGINTZA
OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.
Era guztietako berrikuntza eta igeltsotza lanak:
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...
Tel. 647 040 156 / 686 911 257



OSA
BERNIZATUAK
Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea
Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

tzen dute. Langileen ordezkaria izanik, egoera okerrenetakoa Jesus Mari berak bizi behar izan zuen. “Hotel guztian ibiltzen nire atzetik egiten nuen guztia behatzen. Bere mahaia ere lekuz aldatu zuen eta nire atzean jarri zen”. Egoera ezin jasunik, baja hartu behar izan zuen.

Langile taldearen artean azpijanak egiten zituztela ere salatzen dute. “Langileei esaten zieten ordezkariak txarrak ginela, gauzak gaizki esaten genizkiela eta dirua ere eskatzen genuela. Ordezkarien aurkako esaldiak jasotzen zituzten oharrekin bete dute hotela ere. Azken astean aritu dira esaten ez dugula lanik lortuko beste inon. Ahazteko horretaz, beraiek deituko dutela beste enpresetara, gugatik kristorenak esango dituztela, manifestazioan ateratako argazkiak dituztela, eta ez pentsatzeko beste enpresa batean lana aurkituko dugunik, ahal duten guztia egingo dutela hori ebitatzeko”.

Langileekin bakarkako bilera luzeak ere egin dituztela diote, “nahiz eta jakin halakorik ezin dutela egin”. Elkarrizketa pribatu horiek izan dute bere eragina; izan ere, trinko mantentzen zen lantaldean pitzadurak agertu ziren. Zigorri begiratu lainotzen zaio ‘eskirol’ hitza lehen aldiz erabiltzen duenean. “Hasieran denak batera zeuden, eta ez zegoen eskirolik... orain arte. Lehen eskirolak aste honetan agertu dira [martxoaren 19an egin zen elkarrizketa]. Guztira hiru izan dira. Horiek ere kaleratuak izan dira, baina bilera horietan esan diete beraiekin lanean jarraitu nahi dutela. Egoera delikatuan dauden langileak aukeratu dituzte buru jana egiteko, adinean aurrera doazenak edo etxean soldata bakarra dutenak”.

Lan baldintza txarrak, protestak, mehatxuak eta azkenean kaleratzeak. Nola bizi izan dute hori guztia etxetan? **(Jesus Mari):** “Nahiko gaizki. [bere kasuan emaztea ere kaleratua izan da; hura ere langileen ordezkaria da]. Gu langileen ordezkariak gara eta hasieratik ikusi dugu zer egin nahi zuten. Langileek baino informazio gehiago izan dugu eta zuzendaritzakoen jokaera ikusita garbi genuen azken neurri hau helduko zela. Lasai hartu behar da, besterik ez dago-eta. Langileek beldurra zuten hasieran. Hipotekak dituzte ordaintzeko, eta... badakizu. Hasieran zazpi kaleratze izan ziren, gero beste lau, eta pentsatzen duzu hurrengoak zu izan zaitezkeela. Mehatxuak ere jaso ditugu zuzendaritzatik. Baina aukera handirik ere ez duzu, eta... Zuzendaritzak erakutsi duen tratua ere egin direnean aurrera egin dute”.

Azken hilabete hauetan zerbait positiboa azpimarratzeagatik herritarrek emandako bultzada dela diote. **(Gotzone):**

“Babesa eta elkartasuna jaso dugu, eta kontrako iritzi bat bera ere ez. Jendeak kalean gelditzen gintuen, galdetzeko ea zer gertatzen zen”. **(Jesus Mari):** “Nahiko arraroa egiten zitzairen orokorrean bizi dugun egoerarekin greba egitea. Baina ikusten zuten atzean bazegoela zerbait eta greba ez genuela egiten huskeria batengatik”. Datozen hilabeteetan, epaia eman bitartean, protestekin jarraitzeko asmoa erakutsi du Zigor Gazpiok.

“Behin kaleratua izanda, gogo pixka bat jaitsi egiten da, baina nik uste gerra ematen jarraitu behar dugula. Epaitegien zain egon beharko dugu”.

Zigorren esanetan, Lan Ikuskaritzak dagoeneko bere harridura azaldu du enpresak hartutako erabakiarekin. Epaia, berri, hemendik hilabete batzuetara jasoko dutela espero dute. Aldeko epaia izanda ere, hotelera itzultzeko itxaropen handirik ez dute. “Guk argi ikusten dugu hotela berriro irekiko dutela, eta garbi daukagu

gu kaleratzeko oinarria ez dela ekonomikoa izan. Gu bota gaituzte lan baldintza okerragoak izango dituzten langileak kontratatzeko. Egia esatea nahi dugu”, azpimarratzen du Jesus Marik.

Artikulu hau irakurtzerako Zelai hoteleko lantaldea osatzen zuten hogei lagunak lanik gabe egongo dira. Beste kapitulu bat zabalduko da beraien bizitzan. Etorkizuna nola ikusten duten galdetzean hitzak ahoan kateatzen zaizkio Jesus Mariri. Ez zaio erraza egiten iritzia ematea. Agerian da asko sufritu duela azken hilabete hauetan. Azken

finean, senar-emazteak geratu dira lanik gabe. “Nola ikusten dudan etorkizuna? Oso beltza. Azkenean pertsonak gara edo zeren gainetik, eta etorri behar duena etorriko da. Baina dena dago hain gaizki...”. Gotzonek borroka egiten jarraitzeko asmoa erakutsi du. “Nire kasuan borroka egitea geratzen zait, niri dagokidana lortzeko. Lanpostua ez dut berreskuratuko, baina eman diezadatela nirea dena. Hamaika urtetan zenbat lan egin dudan hor!”

Langileen artean kezka dagoela onartzen du Zigorrek. “Lanpostuak sortuko dira, baina nolakoak izango dira? Itxaropena ez da inoiz galdu behar”. Hotelera itzultzeko aukerak urriak direla dio. “Hara bueltatzea oso da zaila, bai beren aldetik, baita guretik ere. Gainera, han geratuta ere zer baldintzetan izango litzateke? Hori bai, langileek ausardia erakutsi dute egunero joan direlako lanera”. “Burua tente dugula irten behar dugu, duintasunarekin”, nabarmendu du Gotzonek. “Nik uste hori izan dela amorru gehien eman diena, ikustea ez garela makurtu”. ■



“Nola ikusten dudan etorkizuna? Oso beltza. Etorri behar duena etorriko da. Baina dena dago hain gaizki...”



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirotak@euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.
Joxe Mari Korta Induslariak, A1 - 4, pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide Ibiltoxia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolazal@euskalnet.net Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



La Primavera
pizzeria

Alta Mari, 17, behea
tel. 943 247 011

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



RUBIO
Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERAK,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea

talaja
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370



TALAI-PE
jatetxea-erretgia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

Tapaia
Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (kudilloak)
Salxitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 behea Tel. 943 573 905

TXORTENA
JATETXEA

Eguneko menua, Asteburukoak,
Parrilla, Wifi gunea,
Plater konbinatuak,
Kazueltak, Errazioak

Oikiako plaza 24.
Tel. 943 865 315
OIKIA



Txingurri
loradenda

Loradenda erribera, 1
tel. 943 861 180

Lorazaintza
tel. 943 860 778
655 703 343

Nekazaritza Injeneru Teknikoak



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

Urola 2000, s.l.
Aroztegia

*Eraikitzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo, tarima eta pertsiak
*Armarri enpolaratuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoa

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



Xanti
Altzariak S.L.

Xanti Osa
Arantxa Azkue

Amaia plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385



Zalla

- plater konbinatuak
- ogitartekook
- oilasko erreak

Urola Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

web gunea berri dugu

Baleike.com web gunea berri dugu, itxuraz eta edukiz. Besteak beste, sare sozialekin integrazteko egokitu dugu.



Basurde igerilariaren bideoa

Baleike.com-en eman genuen albistea, eta gerora zeresana eman du beste hainbat komunikabideetan. Baleiken argitaratutako inoizko bideorik ikusia da jadanik.

AZKEN ISTORIA

Josu Ansola eta Haize Galarraga, Euskadiko txapeldun

Baleikaren HARRIDETU

300 artikuluak sare sozialekin partekatu

E-maila: [input field]

PERKUPURUA

- Oditara itzuli da gizona txapelketa horretan...
- Dena puntako partidak nola ezizila dira Zuzenaz? [...]
- Gertatzen jarraitzen duen bideoa...
- Aste atzikeraren albistea ezizila du Udalak...

Hondakinen inguruko hitzaldiak

Aste ateko bilketa sistema zer den esplikatzeko hitzaldia antolatzen du Udalak asteazkenean, San Marko udal elkarteak presidente ohi Imanol Azpiroz lagungo da hitzaria, 19:00etan, Alondogian. Horrez gain, apirilaren 11tik aurrera, Udalak zazpi bilerak egingo ditu herritarrekin sistemari buruzko informazioa zabaldu eta zalantzak argitzeko. Bestalde, Ekaj ere hitzaldia antolatzen du maiatzaren 7rako (Alondogian, 19:00etan). Kasu honetan, edukimintzeen sistema defendituko du Alondoko Garapen Iraunkorreko diputatu ohi Carlos Ormazabalak. Hemen dituzue oraingo sarrerak dauden hitzaldiak:

[Gehiago irakurri >](#)

Gaur zabalduko da Zuloaga museo eraberritua

Zerbitzua hilaitez irabita egon ondoren, gaurtik aurrera atak zabalduko ditu bertiko Zuloaga museoak.

[Gehiago irakurri >](#)

Final-laurdenen atarian gelditu da Alex Uranga Australiar

LABURREAN

Darahli 2012 espedizioa, twitter bidez

Gaur arratsaldean abiatuko dira Darahliko 58 lagun Tindoufeko errefugiatuen kanpalekutarantz. Apirilaren Bira arte hainbat ekimen gauzatuko dituzte saharar herriaren alde. Egunez eguneko kontaktuzna egingo digute. [...]

[Gehiago irakurri >](#)

DARAHLI 2012 ESPEDIZIOA

Darahli Ekarria darahli

darahli Ez dira desertoko argazkiak baino behintzat aireportura joan baino lehenagoko irudi bat badugu daguerriko. fb.me/UCLJgm1

darahli Espedizioaren berri Facebook bidez ere emango dizugu facebook.com/darahlizumaia - Gogoratu, gaur 20.00ak aldean aterako dela hegazkina Loritri.



Bideoa: Taosa

Taosak utzitako irudi ederrekin osatutako bideoa ikus dezakezue web gunean.

Final-laurdenen atarian gelditu da Alex Uranga Australiar

Txapelketa bikaina osatu du Alex Urangak Munduko Bodyboard Zirkuluko Australiar proban. Langarren errendimendu itru da eta hamasei ematen artean salkatu da. Langarren errendimendua frogaren postuan gelditu da eta ez du final-laurdenen jokatzean onerarik izan. Hala ere, emaitza oso ona da Alonsotzat, bertara erakutsi baitu txapelketaren oso...

[Gehiago irakurri >](#)

Patxi Saizek bere azken diskoa aurkeztuko du gaur Aita Marin

Patxi Saizek nuzkai kanta tradizionaren eta kantuaren tradizioan inbentzio berriak kanta osatutako Zuzenaz zereko disko berri bat aurkeztuko du gaur Aita Marin egunez duen aurkezpen emanduan (22:00etan). Hemen entzun dezakezue kantariak bat.

[Gehiago irakurri >](#)

Presoen aldeko konzentrazioan parte hartzea deitu du Udalak

Gaur, iriak 30, hileroko azken elkarrekin egiten den beste, ezkerreko presoen...



Zumaia greban

Martxoaren 29ko grebaren unean uneko jarraipena egiten genuen, twitter bidez..



*Kalitatezko
produktuak*

*Gipuzkoako
Okelaren
Ziurtagiria:
GI-OKELA*

Juanjo Larrañaga harategia



BERTAKOA, KALITATEZKOA

GIOKELA, GIPUZKOAKO OKELAREN KALITATEZKO ZIURTAGIRIA

Gipuzkoako pentzuekin eta Gipuzkoan gizenutako txekorren kalitatezko haragia bermatzen du Giokela ziurtagiriak. Gipuzkoako abeltzainak eta harakinak dira Giokelako kide, eta ziurtagiriak bermatutako haragia bakarrik eskaini dezakete. Kontrol zorrotzak pasatzen dituzte ekoizpen prozesu osoan, bai ganadua hazten ari direnean, bai harategietan. Produktuaren trazabilitatea erabat ziurtuta dago, haragi pieza bakoitzaren datu guztiak jasotzen baitira, prozesu osoa kontrolatuta egon dadin.



ZUMAIA

Basadi auzategia, 4. Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUZ

Salegi kalea, 14. Tel./Faxa: 943 890 215

BERTAN EGINDAKO ENBUTIDOAK

Harategian bertan egindako txorizoak, txistorrak eta bestelako enbutidoak eskaintzen ditu, bertako lehen-gaiarekin egindakoak.



KOZINATUTAKO PRODUKTUAK

Kozinatutako jakiak ere eskaintzen ditu Juanjo Larrañagak. Kroketak, sanjakoboak, albondigak, pepper beteak... Baina, harategian salmentan dituzenez gain, enkarguz eskatutako edozer ere prestatzen dute: haragia, arraina, barazkiak... Berezoak eskatutako edozer.



SANTELMOETARAKO BERRIKUNTZA: OLAGARRO ZOPA

Santelmoetarako eskaintza berritzailea aurkeztu du Larrañagak: olagarro zopa. Tradizioa da santelmoetan olarro zopa jatea, baina askotan ez dago edozeinen eskura. Horregatik, proba modura, olarro zopa prestatuta saltzea bururatu zaie. Razioka salduko dute santelmoetan, eta arrakasta badu, urte osoan eskainiko dute.



**BALEIKEKO IRAKURLEENTZAT
ESKAITZA BEREZIA**

2€

Kupoi bakoitzeko bi euroko
deskontua Giokelako txuletetan
(kiloa hartu behar da gutxienez).



SANTELMOAK 2012



OSTIRALA 13

19:00etan Maria eta Josen, San Pedro Txiki eta Txikienak abesbatzen eskutik, santelmotako kontzertua.

22:30ean Aita Mari aretoan, bertso jaialdia. Bertsolariak: UXUE ALBERDI, AMETS ARZALLUS, UNAI ITURRIAGA, SEBASTIAN LIZASO, AITOR SARRIEGI eta JULIO SOTO. Gai-jartzailea: JON MAIA.

23:00etan Txosna eremuan DERIVA taldearen kontzertua eta ondoren, DJ festa.

LARUNBATA 14

10:00etatik 13:00etara Herri mailako arrantza lehiaketa, Talaipetik Parolmuturrera bitartean. (Heriotzarik gabeko proba).

11:00etan Udal Txistulari Bandaren kalejira.

12:00etan San Telmo ermita inguruan, Txupinazoa jaiei hasiera emateko.

Jarraian Musika Eskolako trikitilariak lagunduta, Jaitsiera.

Ondoren Itxas Gain elkarteak antolatuta, Hamaiketako. Tarteak alaitzeko, Bertso Eskolako ikasleen eta trikitilarien saioak.

12:15ean ORIA txarangaren kalejira.

12:30ean Kalejira herrian zehar DARDARADA kolektiboaren batukada.

13:00etan Ondartxo plazan, Musika Eskolako haurren eskutik, euskal dantzen ikuskizuna.

14:30ean Txosna eremuan, Herri Bazkaria. Ondoren jolasak.

18:00etan Kofradian, haur

festa: ERROMERIA.

18:30ean Eusebio Gurrutxaga plazan hasita ORIA txarangaren saioa.

22:00etan Txosna eremuan, kontzertua: DESTROI, The Fridays Crew, Kaleko Urdangak eta NPJ.

22:30ean Eusebio Gurrutxaga plazan, dantzaldia BIDE BATEZ taldearekin.

IGANDEA 15

11:00etan Arbustain Motor elkarteak antolatuta, Udalak eta Kutxak babestuta, Hamaiketako herriko itsasgizon zaharrentzat.

11:00etatik 14:00etara Oxford aretoan, Alondegian, Santelmotako XIV. Scalextric txapelketa.

12:00etan Haurren Danborrada Sagarbide ikastetxetik irtenda.

Ordu berean Eusebio Gurrutxaga plazan, ERKIBE elkartearen eskutik,

Olagarro-zopa dastatzeko aukera.

Eta IRAUNKORRAK txarangarekin kalejira kalez kale.

17:00etan Buruhandi eta Erraldioen kalejira, udaletxetik irtenda.

17:00etatik 19:00etara Scalextric saio gehiago.

18:00etan Haurrentzat, Eusebio Gurrutxaga plazan, KULKIrekin, ANTZARRAREN JOLASA.

18:30ean Eusebio Gurrutxaga plazan hasita IRAUNKORRAK txarangaren saioa.

22:30ean Danborrada Berezia.

Ordu berean Txosna eremuan: ISEKA taldearen kontzertua eta AI EN Eren erromeria, jarraian Karaokea.

23:00etan Eusebio

Gurrutxaga plazan, berbena KUEPETA taldearekin.

Gauerdian Kofradian Bandera Igotzea BIXENTE EGAÑA ANTIA arrantzaletan ohiaren eskutik, Bertan Arbustain Motor elkarteak bere txapel oroigarria oparituko dio. Danborra **amaitutakoan** berbena KUEPETA taldearekin Eusebio Gurrutxaga plazan.

ASTELEHENA 16, SAN TELMO EGUNA

10:15ean Ohiturazko prozesioa San Telmo ermitara.

10:30ean Meza Nagusia, Beheko Plaza Abesbatzak abestua, itsasoaren aurrean otoitza eta Parrokiara itzulera. San Telmoren erlikia gurtzea.

Ondoren, agintari eta gonbidatuei hamaiketako eskainiko zaie Kofradian.

12:00etan INCANSABLES txarangaren kalejira.

17:00etan Haur festa Eusebio Gurrutxaga plazan GORRITren saioa.

18:00etan INCANSABLES txarangaren ekitaldia plazan, eta jarraian herriko kaleetan zehar.

18:30ean Eusebio Gurrutxaga Plazan, URREZKO AIZKORA 2012KO EUSKO LABEL TXAPELKETA.

19:00etan Dantzaldia Kofradiako plazan, OBANEUKE erromeria taldearekin.

19:30ean Kofradian, Sardinajana.

22:30ean OBANEUKE taldearen bigarren emanaldia Kofradian.

OSTIRALA 20

20:00etan Torreberrin, BERTSOTAN JAI herriko bertsolarien saioa.

22:30ean Txosna eremuan, Bertso Gaua herriko musika taldeekin.

LARUNBATA 21

11:30ean Haur Jolasak Ondartxo plazan Itxas Gain elkartearen eskutik.

Ordu berean Eusebio Gurrutxaga plazan, Olagarro-zopa XI. lehiaketa eta Rana eta Pote Txapelketa.

Ekitaldia alaitzeko

ELUSTONDO ANAI-ARREBAK trikitilarien saioa.

12:00etan herriko kaleetan BEHEKO PLAZA eta ZORNOTZAKO KORALA abesbatzen saioa.

14:30ean Txosna eremuan, Bazkaria eta kantu saioa.

18:00etan Eusebio Gurrutxaga plazan, Gaztetxoentzat diskoteka.

18:30ean Kaleetan zehar ZUMAI txarangaren saioa.

22:00etan Txosna eremuan, kontzertua: Zesatek, Lauroba eta Egurra eta Kitto.

22:30etik 02:00etara Kofradian, DJon-ekin disko jaia.

IGANDEA 22

11:30ean OSTOLAZA eta TXAPARTEGI trikitilarien saioa.

Eguerdian Eusebio Gurrutxaga plazan, ERKIBE kultur elkartearen eskutik, OLAGARRO ZOPA.

12:00etan Itzurun hondartzan, ZALDI LASTERKETA.

18:00etan Aita Mari aretoan, Haurrentzat antzerkia "POXPOLO ETA KONPAINIA".

18:30ean Trainerillen estropada, XXIX. San Telmo saria.

Eta OSTOLAZA eta TXAPARTEGI trikitilarien saioa.

Ordu berean TALO-JANA, Txinparta taldearen eskutik.

19:00etan Kofradian, erromeria OROTS taldearekin.

22:30ean OROTS taldearen bigarren saioa.

Gauerdian Bandera jaistea eta Santelmoei agurra.

APIRILA ETA MAIATZA

ERAKUSKETAK

Erakusketak Alondegian

Martxoaren 22tik apirilaren 9ra:

Valentin Manterola.

Apirilaren 12tik 29ra:

Patxi Badiola (argazkiak).

Maiatzaren 10etik 26ra:

Xabier Irureta.

DEIALDIAK

Zumaiako XXIV. Argazki

Lehiaketa: Txuri beltzean, gaia: "Abandoua". Lanak aurkezteko epea: ekainaren 21a.

Maiatza dantzan: Maiatzeko asteburuetan dantza kalean (ikusi egitaraua).

Santelmoak 2012: apirilaren 13tik 22ra.

Maiatzaren 11an hasita, Alondegia kultur etxearen urteurren ekitaldiak.

Maiatzaren 25ean hasita: METAL TOPAKETAK (Informazioa Musika Eskolan 943-86 11 83).

APIRILA

Apirilaren 11 eta 13an

10:00etatik 13:00etara, Algorri Interpretazio zentruan, Jolasen Tailerra, 6-12. urte bitarteko haurrei zuzenduta. (doan).

Osteguna, 12

22:00etan Aita Marin, zine forum: "Shame". Apirilaren 13tik 22ra, Santelmoak.

Igandea, 22

18:00etan Aita Marin, Haur antzerkia POXPOLO ETA KONPAINIA.

Apirilaren 25a

17:30ean Haur liburutegian Pello Añorgarekin ipuin kontaketa.

Osteguna, 26

22:00etan Aita Marin, zine forum: "Niño de la Bicicleta".

Ostirala, 27

22:00etan Aita Marin, antzerkia "LARRIA, KUTSAKORRA, MENDEBALDEKOA".

MAIATZA

Asteazkena, 2

19:00etan Forondan, hitzaldia "Emozioen bitartez komunikatzen" (Gazteleeraz).

Igandea, 6

10:30ean hasita, Gipuzkoako Bertso Eskolen Egunaren VIII. edizioa.

Osteguna, 10

22:00etan Aita Marin, zine forum "Drive".

Ostirala, 18

22:00etan Aita Marin, antzerkia "KAFE TXINATARRA".

Igandea, 20

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia GLU GLU taldearen "Ahatetxo itsusia".

Osteguna, 24

22:00etan Aita Marin, zine forum "Las Acacias".

Ostirala, 25

Estazio Auzoko jaiak, igandea bitartean (ikusi egitaraua).

Igandea, 27

Familia Irteera Ludotekak antolatuta (943-14 32 64)



Maitatu Ukanaga

Oinetako eta erropa konponketak

Produktu eta material ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumala • 943 861 252 • 652 727 740

Zumaia Hotela

Jatekua Kalategia

Alai auzategia, 20750 Zumala tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller

ZUMAIAMOTOR, S.L.

José Rey Alfaro Gerente

Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiamotor@telefonica.net

ZUMAIÁ AUTO-ESKOLA

- Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azeptatzen
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIÁ

Zumaia optika

Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057

TXALAPARTA OPARIAK

Angela Sorana, 2
20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa. 943 430 657

John **COBRA**

Bertsotan jai

Doinua: "Festarik festa (Joselu anaiak)"



1.

Martxoa pasa
aldata urtaroa
festa usaina
berriz hurbiltzera doa
dantza, algara,
zurito ta ardoa
parrandarako
badaukagu gogoa

2.

Ordu berean
txosnetan funtzioa
izango da mila
kanturen bertsioa
guk nahio degu
bertsoen tentsioa
horixe baita
gure dibertsioa

3.

Aurten edonor
da aurkari fuertia
neskekin argi
nahi dute euren tokia
aurten'e tope
omen dator Oikia
ze gogorra den
faborito izatia

4.

John Cobra dator
buelatzeko asmotan
entrenatuak gera
parranda askotan
birra eskuan
irrifarra ahotan
zapian bila
etengabe borrokan

5.

Ausartzen dena
igo oholtza gainera
onak o txarrak
jardun behar da topera
bertso kantuan
gozatzeko aukera
ostiralean
guztiok gaztetxera

BERTSO
TAN
JAI



BALEIKEko irakurleentzat

eskaintza

Errekortearekin,

deskontua!

Momentu gogorretan
BEZEROAREKIN!

49€

ORBEGOZO
MI1712

BALEIKE
-5€



ASPES garbigailua

ALF 1106

- 1.000 bira/min
- 6 kg

BALEIKE
-15€



269€

ASPES
BITROZERAMIKA
3VAT1330X

BALEIKE
MUNTAIA
DEBALDE



199€

SAMSUNG
uE3204003
• LED-a 32"

BALEIKE
-20€



369€

299€

EDESA
HOZKAILUA
ZEN F211
• 144 x 55

BALEIKE
-20€




INOX

599€

EDESA
URBAN F670
KONBIA
• No Frost
• Inox
• 200 x 60

BALEIKE
-20€



ENDAÑETA ZUMAI
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com



10 ARRAZOI HERRIKO DENDETAN EROSTEKO

1. Dendariak bizilagun ditugulako.
2. Gertu ditugulako.
3. Zumaiaiko jardueratan parte hartzen dutelako (festetan, herriko komunikabideetan, kirol elkarteetan...)
4. Herria dinamizatzen dutelako.
5. Zergekin gero eta zama handiagoa jasaten dutelako.
6. Dendarik gabe herri aspergarria litzatekeelako.
7. Herriko dendek sekulako berotasuna ematen diotelako herriari eta herritarren arteko harremanari.
8. Dendariak eskaintzen dutelako zerbitzu profesional onena eta goxoa.
9. Dendek hainbat lanpostu sortzen dituztelako.
10. Zumaia duin batean bizi nahi dugulako.

